



Ebazpena, 2008ko urtarrilaren 11koa, Hezkuntza sailburuordearena, araubide bereziko irakaskuntzen erdi mailako ziklorako sarbide-probarako deia egiten duena Mendi-kiroletako eta Eskaladako Teknikari titulazio ofiziala eskuratzeko, 2008 urtean.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak (BOE, 2006ko maiatzaren 4koa) 64.4 artikuluan zehazten duenez Gobernuak, Autonomia-erkidegoei kontsultatu eta gero, kirol irakaskuntzetako ikasketei dagozkien titulazioak; berorietako bakoitzaren curriculumaren oinarritzko aldeak; eta zentroek kirol irakaskuntzak emateko gutxieneko betebeharrak ezarriko ditu.

Araubide bereziko kirol irakaskuntzaren antolaketa orokorra ezartzen duen urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuak kirol irakaskuntzetara sartzeko bidea arautzen du, besteen artean. Horrela, ikasketak egin nahi duenak baldintza orokorrak betetzeaz gain, kirol arloko baldintza espezifikokoak ere bete beharko dituela ezartzen du, eta baita azken hau egiaztatzeko proba espezifikoko bat gainditu beharko dela ere. Bigarren Xedapen Iragankorrek ezartzen du, abenduaren 19ko 1913/1997 Errege Dekretuaren babesean ezarri ziren kirol espezialitateetako titulu eta irakaskuntza berriak sortu artean, titulu eta irakaskuntza minimo bakoitza arautzen duen Errege Dekretuaren arabera irakatsiko direla, aipaturiko bigarren Xedapen Iragankorreko 2. eta 3. puntuetan zehazten diren alderdiak izan ezik.

Martxoaren 3ko 318/2000 Errege Dekretuak mendi-kiroletako eta eskaladako espezialitateetako kirol-teknikariaren eta goi-mailako kirol-teknikariaren tituluak ezarri zituen, baita gutxieneko irakaskuntzak eta horietan sartzeko probak eta baldintzak ere.

Horrela, Sailburuordetza honek honako hau

EBATZI DU:

Lehena.- Xedea eta aplikazio-eremua.

Mendi-kirola eta Eskalada kirol-modalitateen espezialitateetako kirol-teknikariaren tituluari dagokion sarbide-probarako deia egiten da, 2008rako eta Euskal Autonomia Erkidegorako.

Bigarrena.- Hartzaileak.

1.- Baldintza akademikoak betetzen dituzten ikasleak.



- a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren titulua edo ondorio akademikoetarako baliokidea den beste titulu bat behar da, baita bosgarren puntuan ezarritako berariazko sarbide proba gainditzea ere.
- b) 1363/2007 Errege Dekretuaren hamabigarren Xedapenean Gehigarrian aipatzen diren baldintzetako bat egiaztatzen bada, nahikoa izango da sartzeko, izan ere, aurreko puntuan aipatutako baldintza akademikoaren balioa izango du.
- c) Irakaskuntzen maila ertaineko edozein espezialitateko azken ziklora sartzeko, beharrezkoa da egiaztatzea maila ertaineko hasierako zikloa gaindituta dagoela, dagokion kirol espezialitate edo modalitatean.

2.- Baldintza akademikoak betetzen ez dituzten ikasleak.

Aurreko paragrafoak ezarritakoa gorabehera, adin-baldintzak bete eta Ebazpen honetako **Zazpigarren** puntuan zehaztutako heldutasun-proba gainditzen duten ikasleek ere izango dute irakaskuntzotan sartzea.

Maila Ertainean sartzeko, gutxienez 17 urte eduki edo bete beharko dira proba egiten den urte naturalean, eta proba bat gainditu beharko da, ikasleak egiazta dezan badituela dagokion heziketa-zikloko irakaskuntzak atarramentu onarekin egiteko behar diren gaitasunak. Proba horrek bi zati izango ditu: proba orokorra eta berariazko proba.

Hirugarrena.- Goi-mailako kirolariak edo errendimendu handiko kirolariak edo baliokideak salbustea sartzeko proba eta betebeharretatik.

1.- Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 67 eta 85 artikuluetan eta urriaren 15eko 10/1990 Kirol Legearen 53 artikuluan zehazten denaren arabera, goi-mailako kirolaria edo errendimendu handiko kirolaria dela egiaztatzen duena salbuetsita egongo da kirol-irakaskuntza hauetara sartzeko behar diren baldintza espezifiketatik.

2.- 1363/2007 Errege Dekretuaren hamabigarren Xedapen Iragankorrari jarraituz, abenduaren 19ko 1913/1997 Errege Dekretuaren babesean ezartzen diren titulu eta irakaskuntzen modalitate eta espezialitate berriak sortu artean, irakaskuntza hauetan sartzeko proba espezifikoak egitetik salbuetsita egongo dira aipaturiko xedapenean zehazten diren kasuetan dauden pertsonak.

**Laugarrena.- Sarbide-proba egokituak urritasunak edo ezintasunak egiaztatzen dituztenentzat.**

1.- Pertsona urritu edo ezinduek eskabideak egiten badituzte mendi-kiroletako eta eskaladako espezialitateetako kirol-teknikariaren tituluari dagozkion irakaskuntzetan sartzeko, erakunde eskumendunek emandako minusbaliotasun-ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

2.- 1363/2007 Errege Dekretuaren hirugarren Xedapen Gehigarria betez, eta hala egokituz gero, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak pertsona adituen laguntza edo txostenak eskatu ahal izango ditu epaimahaiak izangaien urritasun-maila edo mugak aztertu, eta mendi-kiroletako eta eskaladako espezialitateetako irakaskuntzak atarramentu onez egin, ziklo bakoitzari dagozkion gaitasunak lortu eta lanean aritu ote daitezkeen baloratzeko.

3.- Epaimahai horrek, bidezko iritziz gero, egokitu egingo ditu aipatu egoeran dauden izangaiek gainditu beharreko berariazko sarbide-probak; nolana ere, errespetatu egingo dira esandako Errege Dekretuaren 2. artikuluan ezarritako helburuen funtsa eta Mendi-kiroletako eta Eskaladako espezialitateetako Kirol-teknikariaren tituluari dagozkion gutxieneko irakaskuntzen helburuak.

Bosgarrena.- Berariazko probak.**1.- Helburua eta egitura.**

Mendi-Kirola eta Eskalada kirol-modalitateen espezialitateetako Kirol-teknikarien irakaskuntzetara sartzeko proben helburua da izangaiek frogatzea egoera fisiko egokia eta berariazko trebeziak dituztela, aukeratu duten prestakuntzari atarramentu ona ateratzeko beste, alegia.

2.- Probak**Maila Ertaineko hasierako ziklora sartzekoak**

Probek bi zati izango dituzte eta komunak izango dira mendi-kiroletako eta eskaladako espezialitate guztietan.

a) Lehenengo zatia:

Edukiak.- Lurrazal askotako mendiko ibilbide batean zehar abiatu 1500 metroko desnibel positibo metatuari ekinez epaimahaiak zehaztutako denboran eta 10 kg-ko zama duen motxila garraiatuz.

Irizpideak.- Izangaiek ibilbidea epaimahaiak zehaztutako denboran osatzen duenean emango da gainditutzat.



b) Bigarren zatia:

Edukiak.-

- 10 kg-ko motxila batez zamatuta eta alde zurretik zehaztutako denboretan, ondoko ezaugarriak dituzten hiru ibilbide osatu:
- Gutxienez 50 m-ko luzera duen ibilbide baliztua osatu aldapa belartsuan.
- Gutxienez 50 m-ko luzera duen ibilbide baliztua osatu harritza batean.
- Gutxienez 50 m-ko luzera duen ibilbide baliztua osatu haitz gune batean.

Irizpideak.- Izangaiak hiru ibilbideak jausi gabe eta zehaztutako denboretanosatzen dituen emango da gairidituztat.

Maila Ertaineko azken ziklora sartzekoak

Probek bi zati izango dituzte.

a) Lehenengo zatia (komuna mendi-kiroletako eta eskaladako espezialitate guztietan)

Edukiak.- Lurrazal askotako mendiko ibilbide batean zehar abiatu 1500 metroko desnibel positibo metatuari ekinez epaimahaiak zehaztutako denboran eta 10 kg-ko zama duen motxila garraiatuz.

Irizpideak.- Izangaiak ibilbidea epaimahaiak zehaztutako denboranosatzen duenean emango da gairidituztat.

b) Bigarren zatia (desberdina espezialitatearen arabera)

1. Goi-mendiko espezialitaterako.

Edukiak.- Aurretik zehaztutako denboretan:

- Eskaladan, bat-bateko eskaladan, 6b zailtasun mailako eta gutxienez 25 metroko luzera duen ibilbide ekipatua osatu.
- Eskaladan, bat-batekoan, 6a zailtasun mailakoa eta ekipatu gabekoa, eta gutxienez 25 metroko luzera duen ibilbidea osatu, eta bota gogorak erabiliz.
- Eskalada artifizialean A1/A2 zailtasun mailako eta gutxienez 25 metroko luzera duen ibilbide ekipatu gabea osatu.



- 35°-45° arteko malda duten eta gutxienez 25 metroko luzera duten zirkuituetan elur eta izotzean aurrera egiteko "punta guztiak" teknika erabiliz.
- Elurretan eta izotzean eskalatzea 80°-90° arteko malda eta gutxienez 25 metroko luzera duten lekuetan.
- Aldapan behera eskiatzen jaitsi, ahal dela elur gogorrarekin, gutxienez 150 metroko luzeran eta 30°ko maldan, luzaketa-flexio biraketak paraleloan eginez.
- Aldapan behera eskiatzen jaitsi, tratatu gabeko elurretan, gutxienez 150 metroko luzeran, azalera irregular dun batezbesteko 30°ko maldan eta, elurraren egoera kontuan hartuz, biraketak eginez.

Irizpideak.-Bigarren proba hau gainditutzat hartuko da izangaiak ondokoak betetzen dituenen:

- Probak aurretik zehaztutako denboretan burutu.
- Betebehar hauetako bakoitza betetakoan:
 - Eskaladan, bat-batekoan, 6b zailtasun mailako ibilbidea osatu.
 - Eskaladan, bat-batekoan, 6a zailtasun mailako ibilbidea osatu.
 - Aldapan behera jausi gabe jaitsi, segurtasunez eta dagozkion teknika-keinuak eginez.
 - Izotz eta elurretan aurrera egin eta eskiatu, teknika egokia erabiliz eta mugimenduetan segurtasuna erakutsiz.
 - Material teknikoa egoki aukeratu eta erabili, kantitate egokian, eta espezialitate bakoitzerako espezifikoa.

2. Arroilen espezialitaterako.

Edukiak.- Aurretik zehaztutako denborak:

- V zailtasun mailako eta gutxienez 20 metroko luzera duen ibilbide ekipatua osatu. Norbait lurrera jausten bada, ibilbide hasieratik abiatu beharko da, kordadako lehena izango balitz bezala.
- Ur lasai edo bizietan 100 metroan igeri egin, neopreno-janzki osoa jantzita.
- 2,5 metroko sakoneran murgildu, teknika egokia erabiliz, eta neopreno-janzki osoa jantzita.
- Hainbat eremutan troka jaitsiera burutu, hurreratzea, «destrepe-a» eta «rappel konbentzionala» sartuz.

Irizpideak.-Bigarren zati hau izangaiek, zehazturiko denboretan, ondorengo ekintzak burutzen dituztenean gainditzen dute:



- Bat-bateko eskalada-ibilbidea amaitzen dutenean.
- Eskatutako distantzia igerian egin.
- Igerian egin gabe urperatu, lehenengo saiakeran, salto egin gabe eta teknika-keinu egokiak erabiliz.
- Troka jaitsiera amaitu, 3 bider baino gehiagotan jausi gabe. Kontuan hartuko da, izangaiari, zirkuitutik ateratzen den bakoitzean, egiten duen denboraren %5eko zigorra ezarriko zaiola. Material teknikoa kirol bakoitzerako espezifikoa egoki erabili, beste material batzuk erabili gabe eta kantitate egokian.

3. Eskaladako espezialitaterako.

Edukiak. -Aurretik ezarritako denboran, 5 ibilbide desberdin osatu:

- Bat-bateko eskaladan 2 ibilbide ekipatu desberdin, 7. zailtasun mailakoak eta gutxienez 25 metroko luzerakoak.
- Bi ibilbide desberdin, ekipatu gabeak, 6b zailtasun mailakoak eta gutxienez 25 metroko luzerakoak.
- Ibilbide bat ekipatu gabeko eskalada artifizialean, A2 zailtasun mailakoa eta gutxienez 25 metroko luzerakoa.

Oharra.- Izangaia jausten bada, berriro hasi beharko du ibilbidea kordadatik.

Irizpideak.- Bigarren zati hau gainditutzat emango da izangaiak zehaztutako denboran ondorengo ekintza hauek egiten dituztenean:

- Bat-bateko eskaladan, gutxienez 7a zailtasun mailako ibilbide bat egitea.
- 6b zailtasun mailako ekipatu gabeko ibilbide biak amaituta.
- Eskalada artifizialean A2 zailtasun mailako ibilbideak eginda.
- Eskaladako materiala egoki aukeratuta eta erabilia.

4. Mendi ertainetako espezialitaterako.

Edukiak. - 10kg-ko motxila batez zamatuta eta alde zehaztutako denboretan, ondoko ezaugarriak dituzten hiru ibilbide osatu:

- Gutxienez 50 metroko luzera duen ibilbide balizatua osatu aldapa belartsuan.



- Gutxienez 50 metroko luzera duen ibilbide balizatua osatu harrizta batean.
- Gutxienez 50 metroko luzera duen ibilbide balizatua osatu haitz gune batean.
- Gutxienez 50 metroko luzera duen ibilbide balizatua osatu aldapa elurtetsuan.
- Orientazio ibilbidea, gutxienez 6 balizaduna eta «tarte murriztuan» neurturiko 6 kilometro ingurukoa. Izangaiak ibilbideko baliza guztiak pasatu beharko ditu.

Irizpideak.-Izangaiak bost ibilbideak zehaztutako denboran eta 5. ibilbidean balizak dagozkien hurrenkeran aurkitzen dituenean, epaimahaiak gainditutzat emango du bigarren zati hau.

Denborari dagokionez, izangaia ibilbidetik ateratzen den bakoitzeko zigortua izango da eta lortutako denborari %5a gehituko zaio.

Seigarrena.- Azken ebaluazioa

Probetan «gai» edo «ez-gai» kalifikazioak emango dira soilik. Sarbide-probaren bi zatiak gainditu beharko dituzte izangaiek «gai» kalifikazioa ateratzeko.

Zazpigarrena.- Kirol-teknikariaren titulu-irakaskuntzetarako heldutasun-proba baldintza akademikorik betetzen ez duten ikasleentzat.

1. Urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuak, Araubide Bereziko kirol irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duenak, araututako Kirolen irakaskuntzara sartzeko baldintza akademikoak betetzen ez dituztenak heldutasun proba honetara aurkeztuko dira.

2. Helburua: Irakaskuntza hauek atarramentu onez egiteko ezagutza eta trebetasun aski badela frogatzea.

3. Edukia: proba bat, bi zati dituen: zati orokorra eta berariazko zatia.

A) Zati orokorra. Bi ariketa izango ditu, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako oinarritzko ezagutzei lotuko zaizkienak, ondoko esparruetakoak.

1.- Lehen ariketa: gizarte- eta hizkuntza-esparrua.

Ondorengo lau irakasgaietatik hiruri dagozkien galderak aukeratuko ditu ikasleak: Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, Atzerriko Hizkuntza (Ingelesa edo Frantsesa) eta Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia. Gehienez ere, 2 ordu eta 15 minutu emango dira.

2.- Bigarren ariketa: zientzia- eta teknologia-esparrua.



Ondorengo hiru irakasgaietatik biri dagozkien galderak aukeratuko ditu ikasleak: Matematika, Biologia eta Geologia, Fisika eta Kimika. Gehienez ere, 2 ordu eta 15 minutu emango dira.

Zati hau kalifikatzeko, bi ariketen kalifikazioen batez besteko aritmetikoa egingo da, eta 5 edo gehiagoko puntuazioa ateratzen bada, proba gainditutzat joko da. Probaren emaitza GAI/EZ GAI terminoekin adieraziko da. Ikasleak, zati hau gaindituz gero, irakaskuntza hauetara sartzeko probaren berariazko zatia egin ahal izango du.

B) Berariazko zatia: Baldintza akademikoak betetzen dituzten ikasleentzako berariazko probaren egitura, eduki eta ebaluazio-irizpide berak izango ditu.

4. Azken ebaluazioa:

Zatietako bat gainditzen ez bada, proba gainditu gabe geratuko da. Probaren guztizko kalifikazioa "ez gai" bada, inola ere ez da emango probaren zatiren bat gainditu izanaren ziurtagiririk.

Zortzigarrena.- Berariazko probak egin eta berariazko betebeharrak baloratzeko epaimahaia.

- 1.- Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak izendatutako epaimahaia arduratuko da probak antolatu, kontrolatu eta ebaluatzeaz.
- 2.- Epaimahaiburu bat, idazkari bat eta hiru ebaluatzaile edo/eta teknikari espezialista bat izango ditu, baloratu beharreko probaren arabera.
- 3.- Epaimahaiburuak bermatuko du sarbide-probak Ebazpen honek ezarritakoaren arabera egingo direla.
- 4.- Idazkariak egingo ditu proben aktak, baita proben garapena Ebazpen honek ezarritakoaren arabera egin dela ziurtatu ere. Epaimahaiburua ez dagoenean, haren ordezkoa izango da.
- 5.- Ebaluatzaileek modu independentean baloratuko dituzte probak, kasuan kasuko irizpideei jarraituz eta ondoko titulazioa beharko dute:

a) Maila ertaineko hasiera ziklora sartzeko probak:

Goi mailako Kirol-teknikariaren titulua mendi-kirol eta eskaladako edozein espezialitatean.

b) Maila Ertaineko azken ziklora sartzeko probak:

- oGoi-mendian: Goi-mailako kirol-teknikaria Goi-mendian edo mendiko eskian.
- oTroketan: Goi-mailako kirol-teknikaria Goi-mendian, Troketako kirol-teknikaria izatea hobetsiko da.
- oEskaladan: Goi-mailako kirol-teknikaria Goi-mendian edo Eskaladan.



o Erdi mailako mendian: Goi-mailako kirol-teknikaria Goi-mendian.

c) *Egoera fisikoaren balorazioa:*
Arestian aipaturiko titulazioak edo "Kirol entrenamendua" modulua irakasteko behar dena.

d) *Baldintza akademikoak betetzen ez dituzten ikasleentzako probak:*
Bigarren Hezkuntzako irakasleak, probako ariketen espezialitatekoak.

6.- Epaimahaiak proposatuta, beharrezko aholkulariak izendatuko dira, dagokion espezialitatekoak.

Bederatzigarrena.- Sarbide-probarako izena ematea. Epea eta tokiak.

1.- Ikasleak heziketa-zikloa non egin nahi duen, ikastetxe horretan emango du izena sarbide-proba egiteko. Horretarako, inprimaki egokia erabiliko du eta ikastetxeko idazkaritzan eskuratuko diote.

2.- Proba euskaraz edo gaztelaniaz egin ahal izango da. Izena emateko orrian adieraziko du ikasleak bere aukera.

3.- Era berean, izena emateko orrian adierazi beharko dute ikasleek sarbide-proban garatuko dituzten ikasgaiak.

4.- Ikastetxeek izena emateko orriaren kopietako bat bidali beharko dute epaimahaiak eratzeko orduan erabakiko duen tokira.

5.- Proba egiteko aretora sartzen den ikasleak bere burua identifikatu beharko du baliozko egiaztagiriarekin.

6.- Hona probarako izena emateko epea eta tokiak:

IKASLEAK	Izena emateko epea	Izena emateko tokiak
Baldintza akademikoak dutenek zein ez dutenek	Urtarrilaren 18tik 31era (biak barne)	FRAY JUAN DE ZUMARRAGA BHI (DURANGO)

Hamargarrena.- Sarbide-proba egiteko toki-egunak.

Tokia: FRAY JUAN DE ZUMARRAGA BHI (Durango)

Sarbide-proba egiteko datak.

A) Baldintza akademikoak betetzen ez dituzten ikasleak.



- Zati orokorra:
 - Eguna: otsailak 1. Lehen ariketa (15:15etatik 17:15etara) eta bigarren ariketa (18:00etatik 20:15etara)

B) Berariazko sarbide probak:

- Eski jaitsiera, izotz gaineko eta "punta guztiak" eskalada goi-mendiko kirol-teknikari izateko azken zikloko probak:
Data: otsailaren 4tik 7ra.
- Maila eta espezialitate guztietarako erresistentzia proba. Erdi-mailako teknikarientzako lehenengo zikloko probak harritzan, belartzan eta gora egitean.
Data: otsailak 9
- Orientazio proba balizekin (bigarren eguna erdi-mailako mendiko teknikarientzat, erresistentzia proben ondoren, harritzan, belartzan eta gora egitean)
Data: otsailak 10
- Eskaladako probak harritzan goi-mendiko kirol-teknikarien azken ziklorako.
Data: martxoaren 15etik 16ra.
- Troka eta eskaladako probak troketako kirol-teknikarien azken ziklorako.
Data: apirilak 12
- Urpekaritza eta igeriketako probak troketako kirol-teknikarien azken ziklorako.
Data: apirilak 13

Bai kasu batean, bai bestean ordutegia Durangoko FRAY JUAN DE ZUMARRAGA BHIaren iragarki ohelean eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren web-gunean: www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net

Hamaikagarrena.- Probaren emaitzak argitara ematea eta erreklamazioak aurkeztea.

1.- Behin-behineko eta behin betiko emaitzak argitara emateko tokiak: FRAY JUAN DE ZUMARRAGA BHIko iragarki-ohola apirilaren 15etik aurrera eta Hezkuntzaren web gunea.

2.- Behin-behineko emaitzak argitaratu (apirilaren 16 eta 17an) eta 48 orduko epearen barruan egin ahal izango du erreklamazioa ikasleak. Erreklamazioa epaimahaiburuari aurkeztuko zaio, FRAY JUAN DE ZUMARRAGA BHIko Idazkaritzaren bitartez.

Erreklamazioen ebazpena eta onartutako zerrenda FRAY JUAN DE ZUMARRAGA BHIko iragarki-oholean eta Hezkuntzaren web gunean, www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net, jarriko da apirilaren 18tik aurrera.

**Hamabigarrena.- Probaren balioa eta ziurtapena.**

1. Proba gainditu duen ikasleak horren ziurtagiria eman diezaiotela eskatu ahal izango du, eta ziurtagiriak Estatu osorako balioko du.
2. Inola ere ez da emango proben zatietako bat gainditu izanaren ziurtagiririk.
3. Berariazko proba gainditu izanak hemezortzi hilabeterako balioko du, probak amaitzen direnetik kontatzen hasita.

Xedapen gehigarria.- Ikasleak onartzea.

1. Eskainitako plazak gehiago badira sarbide-probak gainditutako ikasleak baino, ondorengo onarpen-irizpideak erabiliko ditugu:
 - a) Maila Ertaineko lehenengo urratserako: izangaien Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskola dossierra.
 - b) Goi-mailarako: lehen zikloko azken kalifikazioa.
2. Erreserbatutako plazen portzentajea:
 - a) Eskainitako plazetatik, gutxienez %5, ahalmen urritasunen bat dutenentzat izango dira.
 - b) Eskainitako plazetatik, gutxienez %10, errendimendu handiko kirolarientzat izango dira. Kopuru honen barruan goi-mailako kirolariek izango dute lehentasuna.
 - c) Eskainitako plazetatik, gutxienez %10, proba bidez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua lortu dutenentzat maila ertaineko irakaskuntzetara sartzeko proben kasuan.
 - d) Eskainitako plazetatik, gutxienez %10, federazio-diploma edo, urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuko 4. xedapen gehigarri eta 1. xedapen iragankorrari jarraituz, horren baliokidea dutenentzat izango dira.
3. Aurreko hiru baldintza horien bitartez betetzen ez diren plazak gainerako ikasleei esleituko zaizkie beraienez ezarritako lehentasunaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urtarrilaren 11a
Hezkuntza sailburuordea

Izpta.: Pedro María Ochoa Bernales